

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroekiko harremana, negozio edo enpresa batek bere bezeroekin kontaktuan jartzeko edo harremanak mantentzeko erabiltzen duen modua da. Mota askotakoak daude, baina guk, gure ezaugarriak eta beharrak direla eta, ondorengo erabiltzea erabaki dugu:

Bezeroekiko harremanetan, bi motatakoak bereizten dira, pertsonala eta automatizatua. Guk, laguntza pertsonala aukeratu dugu, hau da, harreman pertsonala, gure nahietara hoberen egokitzen den harremana delako.

Komunikazio mota pertsonalago bat erabiltzea aukeratu dugu, bezeroentzat zalantzak argitzeko modu erraz, bizkor eta erosoago bat dela uste dugulako.



Gure ustez bezeroekin harreman pertsonala edukitzea haiek gure produktuarengan duten interesa mantentzea ahalbidetzen du, izan ere, gure produktuarekin duten edozein arazo erraz eta azkar konpontzeko aukera eskaintzen du. Gainera, zure zalantzak zuzenean argitzen dituen pertsona batekin hitz egin ahal izatea, edonorentzat atsegina izan daitekela uste dugu.

Gure bezeroak gure produktuarengan duten iritzia kontuan eduki ahal izateko eta proiektuaren partaide izan dadin, gure web guneko atal batean produktua eta zerbitzua baloratu ahal izango dute. Informazio hau oso onuragarria izan daiteke guretzat, izan ere, gure bezeroen kezka eta kexak jakiteak gure eskaintza hobetzeko aukera ematen digu.

